

# BALIO PROPOSAMENA

---



Gure balio proposamena hurrengo hau da: adin nagusikoek gure irakaskuntzaren bidez beraien ongizatea, jakituria eta ezagutza garatu ahal izatea, kooperatibotasuna landuz eta beraien arteko harremanak sendotuz, horrela gizartean hobeto eta errazago integra daitezten.



Gure balio proposamenaren ideia garrantzitsuena adin nagusiko pertsonen ikastea, besteekin erlazionatzen ikastea, harremanak sendotzea, gauza berri eta erakargarriak egin ahal izatea eta gaur egungo gizartean modu batean integratu ahal izatea da. Horretarako, gure balio proposamenaren barruan hainbat azpiatal bereiziko ditugu.

Adin nagusiko pertsonen konpetentziak hobetzea, teknologia berriak erabiliz eta bizimodu berri baten bizitzen ikasiz. Bestalde, harremanei erreparatuz, beraien arteko komunikazioa hobetu nahi da, tailerren bitartez eta pentsamenduen elkartrukea eskatzen duten aktibitateak eginez. Kirola sartuz, beraien psikomotrizitatea landu ahalko da, mugimenduak bizkorragoak izateko eta erreflexuak lantzeko.

Tailer hau bukatzen denean, adin nagusikoek beste era batera ikusiko dute gaur egungo mundua, bai teknologia aldetik bai pentsamendu aldetik. Zer nolako harremanak izan behar dituzten ikasiko dute, baita nola hitz egin beste pertsona batzuekin. Gorputza erabiltzen ikasiko dute, erreflexuak landuko dituzte eta ahal den heinean beraien gorputzei probetxua aterako diote, baita ezgaitasunak dituzten pertsonen ere.